

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bakioko Udala****Bakioko tasei, zergei eta prezio publiko zehatz batzuei buruzko ordenantzak behin-behinean onartu (Iragarkia 2017-10-01 Bakio).**

Bakioko Udalbatzak, 2017ko urriaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran, ondorengo tasei, zergei eta prezio publikoei buruzko ordenantzen aldarazpenak behin-behinean onestea erabagi dau.

- Zerga ordenantzea, eraikuntza, instalazio eta obren ganeko zergea arautzekoa.
- Zerga ordenantzea, trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergea arautzekoa.
- Zerga ordenantzea, estolderiaren zerbitzua emoteagaitiko tasea arautzekoa.
- Zerga ordenantzea, sastarrak batzegaitiko zerbitzua emoteagaitiko tasea arautzekoa.
- Zerga ordenantza, uri-lurren balioaren gehikuntzaren ganeko zergea arautzekoa.
- Zerga ordenantzea, udal herri jabaria atzemateagaitiko tasea arautzekoa. Epigrafeak: a) herri bideetan kioskoak instalatzea; b) herri erabilerako lurretan postuak, barrakak, salmenta, ikuskizun, atrakzino edo jolas etxatoak, kale-industriak, herriz herriko industriak eta film-errodajeak instalatzea; eta c) mahaiak eta jesarlekuak imintea irabazteko asmoagaz.
- Ordenantzea, zerbitzuak emotearren edo jarduerak egitearren prezio publikoak arautzekoak.

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 9/2005 Foru Arauko 16.1) artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 eta 70. artikuluetan ezarritakoagaz bat etorritz, aitaturako espedienteak jendaurrean izango dira Bakioko Udaltxean 30 egun balioduneko epean, beti be iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan biharamunetik zenbatzen hasita; horrela, interesatuek aztertu ahal izango dabez eta bidezkotzat jotzen dabezan erreklamazioak aurkeztu.

Behin epe hori igarota, erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, behin-behineko erabagiak betikotzat hartuko dira.

Bakion, 2017ko urriaren 27an.—Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra